



**Zerga bilketako eta generoko
eragina, Zerga iruzurraren
aurkako neurriei, kredituak
kobratzeko elkarren laguntzari
eta zergen arloko beste
aldaketa batzuei buruzko Foru
Arau Proiektuari dagokionez**



1. SARRERA

Txosten honen bidez, kuantifikatu nahi da, zerga bilketari dagokionez, zer eragin izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunean Zerga iruzurraren aurkako neurriei, kredituak kobratzeko elkarren laguntzari eta zergen arloko beste aldaketa batzuei buruzko Foru Arau Aurreproiektuak.

2. ARAUDIAREN ALDAKETAK

Atal honetan jasota daude Foru Arau Proiektuan sartutako araudi aldaketa nagusiak.

2.1. ZERGA IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO NEURRIAK

2.1.1. Aldaketak Gipuzkoako lurralde historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean.

Arau aldaketa batzuk egitea proposatzen da, Foru Zerga Administrazioak zerga iruzurraren aurkako borroka areagotzeko neurriak eta kautelak jartzea ahalbideratzeko.

- **Bazkide oinordekoen erantzukizuna:** Bazkide oinordekoen erantzukizuna: baldin eta legeriak mugatzen badu desegindako pertsona juridikoen edo entitateen bazkideek ordaintzeko dituzten obligazioetan duten ondare erantzukizuna, handitu egiten da bazkide oinordekoari dagokion erantzukizunaren muga, aurretik ezarritako likidazio kuotaren balioari gehitzen baitzaio desegin aurreko lau urteetan jasotako ondarea.



- **Nortasun juridikoa duten entitateen oinordetza sistema:** esplizituki sartzen dira, zerga alorreko oinordetza izan baitezakete, oinorde eta onuradun izaera duten mota guztietako nortasun juridikodun sozietate eta entitateak.
- **Zerga erantzulearen izaera juridikoa:** erantzule hori ez da parekatu behar subjektu arau-hausle batekin, baizik eta zergapeko batekin, zentzu hertsian hartuta, nahiz eta hark subjektu arau-hausleari jarritako zerga zehapenez ere erantzun.
- **Erantzukizun solidarioko kasu berria:** pertsona juridiko baten bazkideak edo administratzaileak, beren zerga pertsonalean haren atxikipenen kenkaria egiten dutenak, pertsona juridikoak atxikipen horiek Foru Ogasunean sartu ez dituenen.
- **Erantzukizun subsidiarioko kasu berria:** ondarrerik izan gabe jarduera ekonomiko erregular bat egiten duten enpresa administratzaileak, jasanarazi beharreko zergengatik edo langileei, profesionalei edo beste enpresari batzuei atxiki beharreko diru kopuruengatik, eta iruzurra egiteko asmoz, behin eta berriz eta sistematikoki diru sarrerarik gabeko autolikidazioen aurkezpen formala egiten dutenak.
- **Zerga helbidea:** zergapekoak aitopenik aurkezten ez duenean, bere zerga helbidea zehazteko, halakotzat hartuko da errolda-oinarrian jasotako helbidea edo bera titular moduan agertzen den edozein ondasun higiezin edo ustiapen ekonomikoren kokalekuaren helbidea.



- **Preskripzioa epeak:** 1) hobetu egiten da arauaren idazkera, preskripzio epeen konputuaren hasieraren “dies a quo”-aren zehaztapenean, erantzukizun solidarioko kasu batzuetan. 2) Argitu egiten da Administrazioak zerga obligazio jakin batzuei dagokienez likidazio bidez zerga zorra zehazteko duen eskubidearen preskripzio epearen konputuaren etenaren araubide juridikoa. 3) Ezarri egiten da Zerga Administrazioaren zenbait jarduketak preskripzio epea eteteko duten eragina. 4) Argitu egiten dira auzi, konkurtso, gatazka eta legezko beste arrazoi batzuk direla-eta preskripzio epearen konputua etetearen ondorioak. 5) Ezarri egiten da egiaztapen eta ikerketa jarduketak egin ahal izango direla zergapekoek konpentsatu, kenkaria egin, itzuli edo gozatu nahi duten zerga kontzeptu eta kreditu fiskal jakin batzuen egoera, jatorria eta zenbatekoa zeintzuk diren zehazteko, nahiz eta ekitaldi preskribatu batetik eratorriak izan.
- **Kautelazko neurriak:** sartu egiten da epaileari bere funtzio jurisdikzionalaren ariketa ahalbideratzen dioten neurriak hartzeko aukera, hark erabakiak hartu ahal izan ditzan kautelazko neurrien eremuan, aurreko ikerketa lan batean oinarrituta eta Zerga Administrazioak baloratuta zergatik gertatzen diren, bere iritziz, kautelazko neurri bat hartzea komenigarri egiten duten zirkunstantziak. Aldatu egiten dira delitu fiskaleko espedienteetan kautelazko neurriak, Foru Ogasunaren jarduketari segurtasun juridiko handiagoa emate aldera.



- **Enbargo diligentziak:** debekatu egiten da erabiltzea akzioak edo partaidetzak enbargatu zaizkien eta, Foru Ogasunaren zordun izanik, horien titularrak enpresaren kontrol efektiboa daramaten sozietateen ondasunak eta horien gaineko eskubideak.
- **Diruzkoak ez diren zehapenak:** aldatu egiten da zehapen horiek jartzeko zehapen prozeduren hasiera epea. Hori horrela, sei hilabeteko epea hasiko da kontatzen diruzkoa ez den zehapenaren balizko ezarpenari lotuta dagoen diru zehapena ezartzeko egintza jakinarazten denetik edo jakinarazitzat ematen denetik aurrera.
- **Berandutza interesak eten eta sortzeko sistema:** erantzukizuna eratortzeko erabakien aurkako errerkutsoa edo erreklamazioa jarritz gero, baldin eta zehapena errekurritzen badu bai zordun nagusiak bai erantzuleak, eten egingo da zehapenaren exekuzioa, eta berandutza interesak sortzeari utziko zaio administrazio bidea amaitzen duen ebazpena jakinaraztean irekitako borondatezko epea bukatu arte doan denbora tartean. Halere, Zergen Foru Arau Orokorrak 472. artikulua 4. apartatuan jasotako erantzukizun solidarioko kasuetan, ez dira aplikatuko exekuzioa eten eta interesak ez sortzeko neurri horiek, kontuan hartuta zuzenbidezko zer egoeratan gertatu daitekeen erantzukizun hori.
- **Identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ):** sartu egiten da Zerga Administrazioak kautelazko neurriak hartzeko aukera, identifikazio fiskaleko zenbakia balio gabetzeko prozeduraren ondorioak ziurtatze aldera.



- **Atzerrian diren ondasun eta eskubideen berri eman beharra:** ezarri egiten da Zerga Administrazioari informatzeko berariazko obligazioa, atzerrian kokatutako kontu, titulu, aktibo, balore, eskubide, ondasun higiezin, ondasun higigarri eta abarrei dagokienez. Obligazioa osatzeko, ezarri egiten dira zehapen araubidea, obligazioa betetzen ez denerako, eta ez-betetze horrek zergetan dakartzan ondorioak.

2.1.2. Aldaketak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauan

- **Zuzeneko zenbatespenean dauden jarduera ekonomikoen etekina.**
Zenbait gastu kengarri izateari mugak jartzen zaizkio:
 - Jatetxe, ostatu, joan-etorri eta bidai zerbitzuengatik: horien %50a, gehienez zergadunaren sarrera guztien %5eraino.
 - Opari eta gainerako esku-erakutsiengatik: 300 euro harzaileko eta zergaldiko.
 - Jarduerari eksklusiboki atxikitako turismoko ibilgailu, motozikleta eta antzekoengatik: 25.000 euroko erosketa prezio bat ezartzen da zerga ondorioetarako, eta prezio horren erreferentzia izango dute gastu kengarriek; hori horrela, erosketa prezio hori gaindituz gero, ibilgailuei lotutako gastuak zenbateko horretaraino zati proportzionalean izango dira kengarriak. Gainera, kenkari muga bat ezartzen da ibilgailuaren erabilpenarekin lotutako gastuei dagokienez: 1) errentamendu, lagapen do balio-galra



kontzeptuan; bi zenbateko hauetatik txikiena: edo 5.000 euro, edo zergadunak erabilitako amortizazio portzentajea bider 25.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa; 2) ibilgailuaren erabilerarekin lotutako gainerako kontzeptuengatik: 6.000 euro.

- o Ez dira kengarriak 2012ko urriaren 29ko 7/2012 Legearen 7. artikuluan eskudiruzko ordainketez xedatutakoa hausten duten eragiketetatik eratorritako gastuak.

- **Justifikatu gabeko ondare irabaziak:** " atzerriko ondasun eta eskubideei buruzko informazio obligazioa" epe barruan bete gabe duten ondasun eta eskubideak egotziko zaizkio oraindik preskribatu ez duten zergaldietatik zaharrena den eta erregularizatu daitekeen ekitaldiari. Hala ere, ez da aplikatzekoa izango, baldin eta zergadunak egoki egiaztatzen badu ondasun edo eskubideon titulartasuna dagokiela edo aitorturiko errentei edo zerga honen zergadun ez zen beste zergaldi batzuetan eskuraturiko errentei.
- **Gauza bidezko errentak:** oro har, gauza bidez jasotako errentak merkatuan duten ohiko balioaren arabera baloratuko dira, baina balio hori inolaz ere ezingo da izan gauzok ordaintzaileari eragin dioten kostua baino txikiagoa, zergak eta gastuak barne. Lan etekinetan, ordaintzailearen jabetzako etxebizitzaren erabilpenaren balorazioa balio katastralaren %2tik %4ra aldatuko da.



2.1.3. Aldaketak Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan.

- **Gastu kengarriak:** PFEZean jarritako muga berberak ezartzen dira jatetxe, ostatu, joan-etorri eta bidai gastuetarako (beren %50a, gehienez zergadunaren sarrera guztien %5eraino); eta opari eta esku-erakutsiengatik (300 euro hartzaile eta zergaldi bakoitzeko). Turismoko ibilgailu, motozikleta eta antzekoei dagokienez, jarduerari eskusiboki atxikitako ibilgailuak eta gainerako ibilgailuak bereizten dira. Lehendabizikoek PFEZean jarritako gastu muga berberak aplikatuko dituzte (erosketa prezioa 25.000 eurora mugatuta dago zerga ondorioetarako; errentamendu, lagapen edo balio-galera kontzeptuko gastuei dagokienez, bi zenbateko hauetatik txikiena: edo 5.000 euro, edo zergadunak erabilitako amortizazio portzentajea bider 25.000 euro eginik ateratzen den zenbatekoa; haien erabilerarekin lotutako gainerako kontzeptuengatik: 6.000 euro). Bigarrenek, aldiz, gastu kengarrien %50eko muga izango dute, eta, aldi berean, erreferentziako zenbatekoen erdia izango dute (12.500, 2.500 eta 3.000 euro). Ezarri egiten da aisiako urontziekin eta aireontziekin lotutako gastuak ez direla kengarriak izango, salbu oso kasu konkretuetan. Azkenik, ez dira kengarriak eskudiruzko ordainketez xedatutakoa hausten duten eragiketetatik eratorritako gastuak.
- **Garraibide jakin batzuei aplikagarriak zaizkien zerga pizgarriak:** ibilgailu jakin batzuei, urontzi eta aireiontziei dagokienez sartutako gastu kengarriaren mugei jarraituz, tratamendu hori bera zabaltzen da amortizazio askatasunarekin, amortizazio azkartuarekin,



aparteko mozkinen berrinbertsiorako salbuespenarekin eta kuota likidoaren kenkariekin lotutako kasuetara, betiere garraio elementu horiei dagokienez.

2.1.4. Aldaketak Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauan.

- **Salbuespena balore eskualdaketan:** sinplifikatu egiten da haren erregulazioa, eta salbuetsi egiten da horrelako exentzioa, baldin eta zergaren ordainketa saihesteko ahalegina egiten bada eskualdatutako baloreak ordezkatzan dituzten entitateen ondasun higiezinaren eskualdaketaren bidez, kasu horretan eragiketa berriro zergapetuko baita.

2.2. ELKARREN LAGUNTZA EUROPAR BATASUNEN KREDITUEN KOBANTZAREN ARLOAN

Gipuzkoako Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean sartzen dira Kontseiluak eskubide jakin batzuei eta bestelako neurriei dagozkien kredituak kobratzean elkarri laguntzeari buruz onartutako 2010eko martxoaren 16ko 2010/24/EB Direktibaren xedapenak.

Kreditu kobrantzaren arloan estatu artean eratutako elkarren laguntza barruko merkatuaren funtzionamendu onerako lagungarria da eta neutraltasun fiskala bermatzen du; gainera, estatu kideei aukera eman



die iruzurra eta aurrekontu galerak prebenitzeko hartutako mugaz gaindiko transakzioetan babes neurri baztertzailleak kentzeko.

Elkarren laguntza honela mamitzen da: informazioa eskatzen zaion agintariak informazioa eskatzen duen agintariari ematen dio azken horrek bere estatu kidean sortutako kredituak kobratzeko behar duen informazioa, eta zordunari jakinarazten dizkio azken estatu kide horretan sortzen dien kreditu guztiei buruzko agiri guztiak. Era berean, informazioa eskatu zaion agintariak estatu kide eskatzailean sortutako kredituak kobratu behar ditu, agintari eskatzaileak eskatuta, edo kreditu horien kobrantza bermatzeko kautelazko neurriak hartu behar ditu.

2.3. ZERGA ALDAKETAK

Foru Arau Proiektuan sartzen dira errenten tributazioan ekitate eta proportzionaltasun printzipioak betetzeko lagungarriak diren aldaketa jakin batzuk ere, nahiz eta ez izan iruzurraren eta elusioaren aurkako neurriak.

2.3.1. Aldaketak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauan

- **Errenta salbuetsiak:** gehienez 60.000 euroko muga izango du langilea kaleratzeagatik edo kargugabetzeagatik jasotako kalte-ordainetatik datorren zenbateko salbuetsiak.



- **Etekin irregularrak:** urteko 300.000 euroko muga bat jartzen zaio kapital higiezinaren eta jarduera ekonomikoen etekin irregularrak eta kapital higigarriaren etekin jakin batzuk 100eko 100etik behera integratzeari. Zenbateko horren gaineko soberakina 100eko 100ean integratuko da.
- **Ondasun higiezinaren errentamenduari edo salerosketari lotutako jarduera ekonomikoen etekinak:** jardueraren etekin osoen %50eko muga jartzen zaie etekinen jatorri diren ondasunak erosi, birgaitu edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen finantzaketa gastuen eta interesen kenkariari.
- **Ondare irabazi eta galerak:** erosketa balioaren eguneratze koefizienteak bakarrik aplikatuko dira ondare elementua erosten denetik eskualdatu bitartean urtebetetik gora igaro denean.
- **Kapital higiezinaren etekinak:** etekin osoen %50eko muga jartzen zaio ondasuna erosi, birgaitu edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen finantzaketa gastuen eta interesen kenkariari.
- **Jarduera ekonomikoen etekin negatiboak:** aldatu egiten dira oinarri ezargarri orokorraren errentak integratu eta konpentsatzeko erregelak, eta bakarrik konpentsatuko dira zergadun berak ondorengo 4 ekitaldietan jarduera ekonomikoan lortutako etekin positiboekin. Baterako tributazioan, ezin izango dira konpentsatu familia unitateko edozein kideren jarduera ekonomikoetatik eratorritako etekinen saldo negatiboak eta familia unitateko beste kide batzuen jarduera ekonomikoek izan ditzaketan saldo positiboak.



- **Ohiko etxebizitza errentan hartzeagatiko kenkaria:** kenkari portzentajea aplikatzen zaion oinarriari kenduko zaizkio zergadunak ohiko etxebizitza alokatzeko jasotako diu laguntzak.
- **Kenkaria ohiko etxebizitza erosteagatik:** kenkari portzentajea aplikatzen zaion oinarriari kenduko zaizkio zergadunak ohiko etxebizitza erosteko edo, hala badagokio, birgaitzeko jasotako diu laguntzak.

3. ZERGA BILKETAKO ERAGINA

Arau aldaketa batek zergabilketan izan dezakeen eraginaren kalkulua iturri fiskal edo ekonomiko baten erabilgarritasunaren menpe dago, horrek aukera eman baitezake kalkulua egiteko. Ezin da zerga eraginik kalkulatu aurreko atalean jasotako arau aldaketa guztietarako. Izan ere, ez dugu horretarako behar den informaziorik, neurriak aitortetan edo autolikidazioetan islatuta ez daudelako edo zergadunek banaka eta berezita aitortu ez dituztelako.

3.1. ZERGA IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO ETA ELKARRI LAGUNTZEKO NEURRIAK

Oso zaila izaten da zehaztea nola eragingo dioten zerga bilketari zerga iruzurraren aurkako borokarako eta elkarren laguntzarako neurriek. Horretarako behar diren datuak ez izateaz gain, nolabaiteko aleatoriotasun maila bat izaten dute bai zergadunen portaerak bai Zerga Administrazioaren jarduketek. Beraz, oso konplexua da etorkizunean nola jokatu dezaketen aurreikustea.



Baina, argi dago neurri horiek asko hobetuko dutela zergen aplikazioa. Zerga Administrazioaren jarduketari segurtasun juridiko handiagoa emateaz gain, zeharka sustatuko da zerga obligazioak berez betetzea, kontuan hartuta zergadunen eskubide eta bermeak.

Horrenbestez, argi dago zerga bilketaren ikuspuntutik eragin ekonomiko positiboa izan dezakeela, zerga iruzurraren aurkako borrokan aurrera egiteko aukera ematen baitu.

3.2. ZERGA ALDAKETAK

3.2.1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

- Langilea kaleratzeagatik edo kargugabetzeagatik izandako kalte-ordainetatik etorritako errenta salbuetsiak: 60.000 euroko muga jartzen da.

Zerga bilketako eragin estimatua: + 6.058.633 euro.

- Kapital higiezinaren etekinak: etekin osoen %50eko muga jartzen zaio ondasuna erosi, birgaitu edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen finantzaketa gastuen eta interesen kenkariari.

Zerga bilketako eragin estimatua: + 235.073 euro



- Jarduera ekonomikoen etekin negatiboak: Ekitaldiko etekin negatiboak bakarrik konpentsatuko dira ondorengo 4 ekitaldietan jarduera ekonomikoetan lortutako etekin positiboekin konpentsatuko dira. Baterako tributazioan, etekin negatibo horiek ezingo dira konpentsatu familia unitatateko beste pertsonen etekin edo saldo negatiboekin.

Neurri horren zerga bilketako eragina zehaztean, beharrezkoa da hainbat alderdi kontuan hartzea:

- o Hasieran, jarduera ekonomikoen etekin negatiboak beste mota bateko errentekin (lana, kapitala...) konpentsatzeko aukera kentzeak berekin ekarriko du PFEZari lotutako bilketa gehitzea etekin negatiboak sortzen diren ekitaldian.
- o Bestetik, gerta daiteke gehikuntza hori ondorengo ekitaldietako zerga bilketa jaitsiarekin konpentsatzea, baldin eta zergadunak jarduera ekonomikoen etekin positiboak lortzen baitu.

Zergabilketako eragin estimatua: + 2.430.418 euro.

NEURRIA	Zenbatekoa (€)
Langilea kaleratzeagatik edo kargugabetzeagatik izandako kalte-ordainetatik etorritako errenta salbuetsiak	6.058.663
Kapital higiezinaren etekinak: %50eko muga	235.073
Jarduera ekonomikoen etekin negatiboekin konpentsazioa	2.430.418
GUZTIRA	8.724.154



4. GENERO ERAGINA

4.1. TXOSTENAREN OINARRIAK ETA XEDEA

Euskal Autonomia Erkidegoan onartuta dagoen Gizon eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 6. artikuluan dio foru administrazioei dagokiela foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioaren arabera. Era berean, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezartzen du, foru arauen aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak prestatzeko prozeduraren barruan, genero eraginari buruzko derrigorrezko txosten bat aurkeztu behar dela eranskin gisa.

4. 2. GENERO IKUSPUNTUTIK KONTUAN HARTZEKO NEURRIEN IDENTIFIKAZIOA

Foru Arau Proiektuaren bitartez, hainbat aldaketa planteatu dira, eta horietako gehienak dira zerga iruzurraren aurkako borrokarako eta estatu kideen arteko kreditu kobrantzararen arloko elkarren laguntzarko neurriei buruzkoak.

Aldaketa asko teknikoak dira eta ezin dira kuantifikatu zergabilketaren ikuspuntutik, ez baitugu horretarako beharrezkoa den informazioa: neurriak ez daude islatuta aitorpenetan edo autolikidazioetan, ez dituzte



zergadunek banaka eta bereizita aitortzen... Beraz, genero ikuspuntutik kuantifikatzea ere ezinezkoa da.

Halere, badira, emakumeak izan edo gizonak izan, pertsonengan eragin dezaketen neurri kuantifikagarri batzuk. Honako hauek dira, betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauaren barruan.

- Langilea kaleratzeagatik edo kargugabetzeagatik izandako kalte-ordainetatik etorritako errenta salbuetsiak
- Kapital higiezinaren etekinak: etekin osoen %50eko muga jartzen zaio ondasuna erosi, birgaitu edo hobetzeko inbertitutako besteren kapitalen finantzaketa gastuen eta interesen kenkariari.
- Jarduera ekonomikoen etekin negatiboak: ekitaldiko etekin negatiboak bakarrik konpentsatuko dira ondorengo 4 ekitaldietan jarduera ekonomikoetan lortutako etekin positiboekin.

4.3. GENERO ERAGINAREN EBALUAZIOA

4.3.1. Egoeraren abiapuntua

2011ko PFEZn dagoen abiapuntua emakumeentzat eta gizonenetzat honakoa da:



- Aitorpen guztien artean %44,4 emakumeei dagokio, eta beste %55,6 gizonezkoei.
- Oinarri likidagarri osoaren %37,3 emakumeei aitortzen dute, eta beste %62,7 gizonezkoek.
- Guztira ordaindutako zergaren (kuota likidoa) %33,0 emakumeei dagokio, eta beste %67,0 gizonezkoei.

Eta aztertutako neurrien parekoak diren kontzeptuetan egoera honakoa da:

Kontzeptua	Aitorpen kopurua		Aitortutako zenbatekoa	
	% emakumeak	% gizonak	% emakumeak	% Gizonak
Laneko etekinak	44,0	56,0	36,8	63,2
Kapital higiezinaren etekinak	47,8	52,2	52,6	47,4
Jarduera ekonomikoen etekinak	36,4	63,6	32,9	67,1

4.3.2. Zerga bilketatko eragina sexuaren arabera

Zerga bilketako eragin osoa sexuen arabera honela banatzen da:

NEURRIA	Emakumeak	Gizonak	Emakumen %	Gizonen %
Langilea kaleratzeagatik edo kargugabetzeagatik izandako kalte-ordainetatik etorritako errenta salbuetsiak	1.266.649	4.792.014	20,9	79,1
Kapital higiezinaren etekinak: %50eko muga	71.923	163.150	30,6	69,4
Jarduera ekonomikoen etekin negatiboaren konpentsazioa	628.238	1.802.180	25,8	74,2
GUZTIRA	1.966.810	6.757.344	22,5	77,5

Zenbatekoak eurotan



- Langilea kaleratzeagatik edo kargugabetzeagatik izandako kalte-ordainetatik etorritako errenta salbuetsiei dagokionez, emakumeek zerga bilketaren igoeraren %20,9 metatzen dute, aitortutako lan etekin osoen %36,8 diren bitartean. Hau da, proportzionalki zerga bilketako eragin txikiagoa jasaten dute.
- Kapital higiezinaren etekinetan, emakumeek etekin osoaren erdia baino gehiago (%52,6) aitortzen dute, baina zerga bilketaren igoeraren %30,6 metatzen dute. Kasu honetan ere jasaten duten zerga bilketaren igoeraren portzentajea, beraien pisu erlatiboa baino txikiagoa da.
- Jarduera ekonomikoen etekin negatiboen konpentsazioari dagokionez, emakumeek zerga bilketaren igoeraren %25,8 metatzen dute, eta beraien pisu erlatiboa aitortutako errentetan zertxobait handiagoa da: %32,9.

4.3.3. Generoko eragina

Proposatutako aldaketak neurri unibertsalak dira, hau da, ez daude zuzenduta gizatalde jakin bati. Beraien helburu nagusia da zerga sistema justuagoa eta ekitatiboagoa eratzea, zerga administrazioari iruzurraren aurkako borroka areagotzeko neurriak eta kautelak emanez.

Genero ikuspuntutik, aztertutako neurri bakoitzak eragin handiagoa du gizonengan. Eta datuak bere osotasunean aztertuta, aurreikusten den



zerga bilketaren igoeraren hiru laurden baino gehiago (%77,5) gizonezkoek jasaten dute, beraien pisu eraltiboa aitortutako errenta osoan %62,7 denean, eta ordaindutako zergan %67,0.

Aztertutako neurriak positiboak dira genero eraginaren ikuspuntutik, izan ere, proportzionalki gutxiago eragiten dute emakumeetan. Beraz, aurreikusten dena da zerga ordaindu ondorengo errenta erabilgarriaren banaketan dagoen ezberdintasuna txikiagotu egingo dela.

Donostia, 2013ko maiatzaren 20a

AZTERLANETAKO ATALBURUA

ONIRITZIA

ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA